

# ORDEZTEAN OINARRITUTAKO IRUZURRAK

Interneten hainbat iruzur daude nortasunaren ordezkapenarekin lotuta. Hauek dira ohikoenak eta haien detekzio-jarraibideak.



## PHISING - EMAILA

Guri iruzurtzeko kontaktu ezagunak eta enpresak ordezen dituzten posta elektronikoak dira.

Emaila zein helbidetik bidali den begiratu behar dugu. Gaizki idatzita badago, iruzurra da. Enpresen e-postek enpresaren izena izan ohi dute @-ren ondoren: "harremanak@amazon.es". "amazon@gmail.com".

- Erakunde edo enpresa baten email ofiziala bada, agur pertsonalizatua izan behar du, ez "erabiltzaile estimatua", "Kaixo,"... baizik eta "Juan García maitea".



## WEB ORRIAK ORDEZTEA

Benetako orrialde batean gauden jakiteko, orriaren helbidera edo url helbidera begiratu dugu. Gaizki idatzita badago, faltsua da, orria edozein dela ere.

Adibidea: [www.macsonrisas.es](http://www.macsonrisas.es) gaizki  
[www.macsonrisas.es](http://www.macsonrisas.es) ongi

Behin orrialde egokian gaudela, erosketak egiteko edo informazioa sartzeko, helbide-barran giltzarrapoa dagoela edo helbidea https bidez hasten dela ziurtatu behar dugu.



## SARE SOZIALETAN KONTUAK ORDEZTEA

Kontu faltsuak detektatzeko, kontuaren erabiltzaile-izenari erreparatu beharko diogu. Ezin dira erabiltzaile-izen bera duten bi kontu egon. Normalean, ordeztutako kontuen antzeko erabiltzaile-izenak dituztenak sortzen dira.

Mezularitzako app-etan, telefono zenbakiari ere erreparatu beharko diogu.



## TELEFONOZ ORDEZTEA

Telefono deien bidez iruzurrak saihesteko, ez da gomendatzen mezu bat bidali digun edo telefonoz deitu digun inori ezer erostea, ezer deskargatzea edo dirua bidaltzea. Eskegi egingo dugu, enpresa edo pertsona horren telefonora deituko dugu eta ea deitu digun galdetuko diogu.

